



2027ko GARIZUMA

Elkarrekin
GOSEA DESAGERRARAZIKO
DUGU

Haur eta familientzako
jardueren koaderno



Guztiok gara munduaren martxaren erantzule. Elkartuz,
hitz eginez eta aliantzan lankidetzan arituz bakarrik egin
ahal izango dugu komunitatea, eta senidetasuna eraiki!

Manos Unidas

**Zer ikusten duzu argazki honetan?
Nola lotzen duzu esaldiarekin?**

**Nola hitz egiten eta laguntzen duzu etxean,
eskolan eta bizilagunekin?**

Manos Unidas
CAMPAÑA CONTRA EL HAMBRE



Borondatezko Barauaren Eguna
2027ko otsailaren 12a, ostirala

Manos Unidasen Jardunaldi Nazionala
2027ko otsailaren 14a, igandea



GARIZUMAKO OTOITZAK



I. Astea

Jesus jauna, tentazioek erakusten digute benetan garrantzitsua dena baloratzen, eta ez da ez aberastasuna, ez ospea, ezta besteak baino gehiago izatea ere. Lagun iezaguzu pertsona bakoitza nolako den deskubritzen eta estimatzen, komunitate bat eraikitzeko zer ekarpen egin dezakeen, hori baita funtsezkoa.

II. Astea

Jesus, aitortu nahi dizugu Jauna, Jainkoaren Semea zarela. Gure bihotza, zurea bezala, ireki dadila lurreko herri eta nazio guztietara, pertsona bakoitzarengan ereiten duzun ongia eta edertasuna aurkitzen jakin dezagun.

III. Astea

Jesus jauna, fruitu ona eman nahi dugu. Badakigu besteekin lan eginez mundua justuagoa egin dezakegula. Erakuts iezaguzu lankidetzaren eta aliantzaren garrantzia, zure aitak eta zuk gizateria osoarekin egin zenuten bezala.

IV. Astea

Jesus maitea, seme oparoaren parabola aita on eta errukiorrarena ere deitzen da. Horrelakoa da Jainkoa, zure Aita. Abegikorrak izan nahi dugu, hitz egin, entzun, barkatu eta ez epaitu, maitasunez eta alaitasunez bizi ahal izateko.

V. Astea

Jesus jauna, batzuetan gure bihotzak ez daki barkatzen ez familian, ez lagunekin, ez komunitatean. Barkamena eta errukia zarenez, eta beti gure ondoan zaudenez, gure bihotza maitasunez, barkamenez eta alaitasunez betetzeko eskatzen dizugu.

Erramu-igandea

Jesus maitea, Jauna gisa aitortzen zaitugu; horregatik, goretsi egin nahi zaitugu, erramuak goian ditugula jarraitu, eta zuk irakasten diguzuna egin: denok senideak izan mundu hobe egiteko. Lagun iezaguzu berriz elkartzearen, elkarriketaren, justiziaren eta bakearen alde lan egiten.

MAHAIA BEDEINKATZEA

Jesus jauna, mahaiaren inguruan, eskerrak ematen dizkizugu. Zuk komunitatean bizitzen irakasten diguzu. Zu dizipuluekin bizi zinen eta pozak, itxaropenak eta zailtasunak partekatzen zenituen. Lagun iezaguzu Zu bezalakoak izaten, gure eskuak batzen, mundu hobe baten alde lan egiten eta ematen dizkiguzun dohain guztiengatik eskerrak ematen.



ELKARTASUN-HISTORIAK



India

Aisha dut izena, eta "bizia, bizitasunez betea" esan nahi du. Nire herria Sam Blokean dago, Indiako basamortu-eremu batean, non ia ez baitu euririk egiten eta lurpeko ura oso sakon baitago. Ondorioz, oso zaila da edateko, janaria prestatzeko, garbitzeko edo landatzeko ur ona aurkitzea.

Ajmerreko elizbarrutiko Gizarte Zerbitzuei esker, Manos Unidasekin eta Espainiako eraikuntza-enpresa batekin lankidetzan, 3.500 pertsonaren bizitza hobetu da, euri-ura bilduz eta zainduz.

Zure ustez, zergatik izan da garrantzitsua lankidetzaren Aisharen herrian ura lortzeko?



Tanzania

Adil naiz. Nire izenak "justua" esan nahi du. Tanzanian bizi naiz. Hemen emakumeak laboreak ereiteaz eta zaintzeaz arduratzen dira, teknika tradizionalekin eta oso oinarritzko tresnekin. Pamoja Tunaweza Sadini Amcoms LTD kooperatiba sortu dute; alegia, "Elkarrekin ahal dugu" swahiliz, nire hizkuntza.

Manos Unidasen eta Espainiako enpresa baten laguntzarekin, traktore bat eta garia jotzeko bi makina lortu dira, eta horrek ekoizpena eta familien elikadura hobetu ditu.

Zure ustez, zer esan nahi du kooperatibaren izenak eta nola lortu du gauzak aldatzea?

Peru

Mariana dut izena eta Peruko oihanean bizi naiz. Han, gero eta baso gutxiago geratzen da, zuhaitzak mozten eta minak legez kanpo irekitzen ari direlako. Peruko Gizarte Ekintzarako Gotzainen Batzordea eta Europako hainbat erakunde, besteak beste, Manos Unidas, lau lankidetzaren sarean elkartu dira.

Haien bidez, pertsona guztien bizikidetzaren, parte-hartzea eta bizi-baldintzak hobetu nahi dira.

**Zer esan nahi du lankidetzaren sarearen sortzeak?
Zer garrantzi izan du komunitateen bizitza hobetzeko?**

